

**UR PARTZUERGOA.** Irailean Basauri atzean itzi, eta sareak Galdakao, Arrigorriaga eta Ugaoko bidea hartuko dau

# Etxebarri eta Basauriko hondakin urak saneamendu sare barruan sartu ditue

Nerbioi-Ibaizabal etengailuaren Bolueta-Urbi tarte horrek, etxeetako ura ez eze, industrialdeetakoak be hartuko ditu



JON HERNANDEZ / ARGAZKI PRESS

Maria Esther Solabarrieta diputauak eta generako agintariek argazkilarien aurrean plantak egin zituen.

Iñigo Bilbao

Etxebarri eta Basauriko hondakin urak Galindoko arzetegian garbituko ditue hemendik aurrera. Izan be, atzotik martxan ipini dabe Nerbioi-Ibaizabal etengailuaren Bolueta eta Urbi arteko zatia, eta hortik bideratuko dira Etxebarri udalerriko urigie eta industrialdeetako hondakin ur guztiak, baita Basauriko zati batekoak be. Igaz uriburuko hondakin urak hartzeko zatia ipini zanetik, atzokoa da Saneamendu Planean emon dan azkenengo pauso esanguratsua.

Azpiegitura horrek zenbateko garrantzia daukan nabarmendu guran, Etxebarriko batu ziran atzo eguerdian, eskualdeko udal agintariek batera Iñaki Etxebarria Ur Partzuergoko lehendakaria, Ana Oregi Jauriartzako Uren zuzendaria, eta Maria Esther Solabarrieta Ingurumen foru diputaua, besteak beste. Etxebarriak azaldu eban, ubide horrek hartu eta arzetegiraino eroango dituan hondakin ur horreek Ibaizabal erreka bota izan ditue orain arte, Boluetako presaren eta Nerbioi errekeagaz bat egiten dauen gunera arteko tartearen.

Bolueta-Urbi zatiaren obrak ez ditue irailaren bigarren hamabostaldira arte amaituko, baina orain zabaldu daben tartean Etxebarriko 7.000 eta Basauriko 20.000 herritarren hondakin hurak batuko ditue.

Emondako datu teknikoen arabera, orain zabaldu daben tartea Boluetako Santa Ana industrialdean hasi, eta Basauriko Urbi auzoran amaitzen da. Datetara 2.313 metroko ubidea da, eta hori egiteko 15.121.262 euroko inbertsinoa egin behar izan dabe. Pedro Lobato Etxebarriko alkateak erakundeetako ordezkari egindako ahalegina eskertu eutsen, eta saneamendu tasearen inguruan Ur Partzuergoak jaso dituan kritikak txarretsi zituan, horrenbeste urte itxaron behar izan daben arren, etxebarritarrek orain ikusi ahal izango dabelako Ur Partzuergoak zertan erabili dauen euren dirua.

## Aceralia enpresearen ahalegina

Saneamendu sarea egiten Administrazioak egin dauen ahalegina handia izan dan arren,

## AGINDUA

### Ur Partzuergoak Europak ipinitako epeak beteko ditu

2006 urtearen lehenengo egunerako amaituta egon beharko dabe Europako Batasun 20.000 herritar baino gehiago dituen herrietako hondakin urak batuko dituen saneamendu sare guztiak. Epe horregaz dabilz beharrean Ur Partzuergoko ardura-dunak, eta, Maria Esther Solabarrieta diputauak atzo aurrertu lez, ordurako amaituta egongo da Nerbioi-Ibaizabal erreken saneamendua.

Europako agindua 1991 urtekoa dan arren, Solabarrieta nabarmendu eban Ur Partzuergoak 1979 urtean hartu ebala sarea egiteko erabagia, eta itsasotik gora hasi ziranez, errekearen urek hartzen daben norabidearen kontra joan dira egiten sarea.

Igaz Bilbora ailegau zan, eta orain barriz, Etxebarria. Irailean atzean itxiko dau Basauri, eta aitatutako epea agortu baino arinago, hondain ur guztiak sarearen barruan izango dira.

## KRITIKAK

**Ahalegina eskertu, eta saneamendu tasearen inguruan Ur Partzuergoak jaso dituan kritikak txarretsi zituan alkateak**

Lobatok Aceralia enpreseak egin dauena ez dala txikiagoa izan nabarmendu eban, duela urte gitxira arte enpresa hori zalako Nerbioi erreka kutsatzen lehenengoa, eta orain lau urte euren hondakin urak jaso eta garbitzen hasi zalako.

Sare osoa amaitzeko, zati horretatik Galdakao aldera joko dabe, eta, horren ostean, Arrigorriaga, Zamatamo eta Ugao aldera, udalerri horretako hondakin ur guztiak arzetegiko bidean ipini arte. Obrak aspaldi hasi ziran eta emaitzak laster ikusiko dirala aurreratu eban.

## Ikerketa Batzordeko lehendakaria izendatea berari jagokola dino Azkunak

Erredakzioa

Ur Partzuergoak egindako kudeaketa aztertzeke Ikerketa Batzordea osotuko dabe, Udalean. Eta batzorde horretako lehendakaria nor izango dan erabagitea berari jagokola gogoratu eragin deutso PSE-EEri Iñaki Azkuna Bilboko alkateak.

Horrezaz ganera, ikerketa batzorde horren asmoa zalan-tzan ipini dau Azkunak. EAEko Kontuen Epaitegia dabil Partzuergoak ikertzen, eta haren eritxiz, horregaz nahikoa da. Batzordeko lehendakari

Isabel Sanchez (EAJ) izendatea, dana dala, zuzena litzatekeela agertu dau. «Oposizino-ko edozein izendatea baizen zuzena, alegia».

Bestalde, Bidebarrieta liburutegiaren ikerketeagaz be kontu bera jazo zala esan eben sozialistek, joan dan astean. Azkunak, baina, hori kontu desbardina izan zala esan dau. «Bidebarrieta %100ean da Udalarena, eta beraz, Udalaren beharra zan liburutegiak egindako kudeaketa ikertzea. Partzuergoan, oster, Udalak akzino gitxi ditu, eta horregaitik, EAEko

Kontuen Epaitegiak ikertu behar dau».

Azkunak generatu daue-nez, gatxa da Partzuergoan EAJ ordezkatzan ez daben zinegotziek osotzea batzordea. Izan be, Azkunaren eritxiz, Partzuergoko batzarrean gitxiengo daukienez iskanbila baino ez dabe sortu gura, ikerketa batzordean.

Hori holan, Bilboko saneamenduaren alde Partzuergoak egin dauen beharra nabarmendu dau. Eta Diputazioan 10 urtetan PSE-EEk gestionatutako intermodalaz zer jazo dan galdetu deutso PSE-EEri.